

bai aldizkaria

Bai Euskarari Elkarteen aldizkaria | 35 zk | 2022ko ekaina



LAN ETA BIZI
EUSKARAZ

***Egiten eta eragiten
dugulako gara***

#BAIEUSKARARI SARIAK2022





Rober Gutiérrez
[Zuzendaria]
@robergutierrez

Egiten eta eragiten dugulako gara

Orain dela 22 urte Bai Euskarari Ziurtagiriaren proiektua abiatu zen leku berera itzuliko gara aurten Bai Euskarari Sarien ekitaldia ospatzera, Gipuzkoako Zientzia eta Teknologia Parkearen egoitza nagusira hain zuzen ere. 22 urte pasa dira arlo sozioekonomikoan euskarari BAI esan eta lehenengo 231 gizarte eragile haiek konpromisoa hartu zutenetik, eta agerikoa da urte hauetan Bai Euskarari Elkarateak alor sozioekonomikoaren euskalduntzean gizarteari egin dion ekarpena. Agerikoak dira, era berean, une honetan Bai Euskarari Ziurtagiria duten 1.318 entitateek egindako urratsak eta lorpenak.

Bai Euskarari Ziurtagiriarekin hasi genuen ibilbidea eta alor sozioekonomikoaren espazioak euskaraz betetzeko eta eragiteko xedez aritu gara urte hauetan, komunitatea sustatuz eta tresna, baliabide zein proiektu berri-tzaileak eraikiz eta partekatuz. Proiektu propioak sortu ditugu (Ziurtagiria, Enpresarean, Lansarean lan-ataria, Euskaragileak, 'Elkarrengandik Ikasiz' solasaldiak), elkarlanean aritzen gara (Euspot Lehiaketa, Lazarraga Sariak, Beterri-Saretuz, etab.) eta erakunde ezberdinei zerbitzua eskaintzen diegu (Arabako Enpresen Foroa, Euskara Langai, etab.). Ziurtagiri bat baino askoz gehiago izatera iritsi gara, eta aurterra begira ere eremu ezberdinetan eragiten jarraituko dugu.

Jon Abrilek aldizkari honetako elka-

rrizketan hauxe dio: "Geroz eta gizarte indibidualistagoa dugu eta horretan ez jausteko badaude ahalegin kolektibo aunitz Euskal Herrian. Globalizazioan desberdin egiten gaituzten horiei eusten badiegu, hobeak izango gara". Ez du arrazoirik falta Abrilek. Aspalditik diogu guk ere desberdin egiten gaituzten horiei eutsi behar diegula, bertakoari, gertukoari; eta gurean, euskara dugu ezberdintzeko elementu nagusi. Euskara dugu saretzeko tresna eta komunitateko kide sentitzeko elementu. Euskarak zabaltzen dizkigu ateak lan-merkatuan eta baita bezeroen merkatu globalizatuan ere.

Sasoi Eraikuntzak-eko lagunek ere garbi dute: "Euskaraz hitz egiteak konfiantza eragiten du bezeroengan". Eta konfiantza hori ezinbestekoa da etorkizunean etorriko diren lankidetzaproiektuetarako.

Euskarak hezkuntza esparrua hartua du, baina erronka ugari ditugu lan-munduan eta aisialdian eragiteko. EuskarAbentura ekimenak Euskal Herrian euskaraz bizi daitekeela erakusten die hilabetez gazteei; epe hori handitzea izango da hurrengo erronketako bat.

Lehen Bai Euskarari Ziurtagiriak banatu ziren egun hartatik, 22 urte geroago ere, beharrezkoak izango ditugu eragile, enpresa, erakunde eta norbanako ezberdinen arteko elkarlana eta komunitate osoaren indarra, euskaraz egiten eta eragiten jarrai dezagun.

Bai Euskarari Sariak 2022

Sasoi eraikuntzak	3
EuskarAbentura	6
Elhuyar	9

Euskara Langai jardunaldia	12
----------------------------	----

Arabako Enpresen Foroa	13
------------------------	----

Komunitatearen txokoa	14
-----------------------	----

Argitaratzailea: Bai Euskarari Elkaratea
www.baieuskarari.eus

Martin Ugalde Kultur Parkea - 20140 Andoain
t. +34 943592148

38 Cordeliers karrika - 64100, Baiona
t. +33 603494365

Luzarra 10, 2-1 - 48014 Bilbo

Rogelia de Alvaro Elkarteen Etxea A.1.1.
Panama, z/g - 01012, Gasteiz

Martzelo Zelaieta, 75 U3 eraikina,
13. bulegoa 31014 Iruñea

Zuzendaria: Rober Gutiérrez

Kudeaketa eta erredakzio-taldea:
Bai Euskarari Elkaratea eta Arteman
Komunikazioa.

Diseinua eta maketazioa: dalvez

Argazkiak: Bai Euskarari Elkaratea,
Arteman Komunikazioa, Elhuyar, Sasoi
eraikuntzak eta EuskarAbentura.

Inprimatzailea: Leitzaran Grafikak

Banaketa: Bai Euskarari Elkaratea

Lege gordailua: SS-497-2010



LAN ETA BIZI
EUSKARAZ

baieuskarari.eus



ANE URANGA SASOI ERAIKUNTZAK ENPRESAKO BULEGO TEKNIKOAREN ARDURADUNA
ENERITZ LANZ KALITATE ETA INGURUMEN ARDURADUNA

“Gure barne-politikan dago eskualdeari euskaraz ekarpena egitea eta hedatzea”

Sasoi Eraikuntzak enpresa Sunbillan (Nafarroa) dago eta eraikuntza sektorean aritzen da, obra zibilean. ‘Bidean’ ziurtagiriarekin hasi zuten ibilbidea 2011n eta, gaur egun, ‘Zerbitzua euskaraz’ eskaintzen dute. Urratsez urrats enpresan euskara txertatzen egin duten lanarengatik jasoko dute aurten Bai Euskarari Saria.



Bai Euskarari Saria jasoko duzue. Zer da zuentzat sari hau jasotzea?

(Eneritz Lanz) Urtetan egindako lanaren errekonozimendua edo esker ona bezala hartu dugu saria. Hargit kontent gaude.

Eraikuntza arloan diharduzue. Zehazki, zein zerbitzu eskaintzen duzue?

(Ane Uranga) Obra zibilean aritzen gara batez ere: hirigintza, bideak eta komunikabideak, zerbitzu sareak, lur mugimenduak, egonkorteak... Gure bezeroak gehienbat administrazio publikokoak dira, bai Gipuzkoan eta bai Nafarroan. Entitate pribatuentzat ere egiten dugu lan, batez ere Nafarroan eta baita Ipar Euskal Herrian ere.

Nola aldatu da eraikuntza arloa azken urteotan?

(A.U.) Egia esanda, gutxi aldatu da. Badator sektorearen digitalizaioa, baina horrek suposatzen du oso errotuta dauden rolak aldatzea eta kostako zaio. Beste sektore batzuetan, adibidez, oso estandarizatuta daude prozedurak eta errazagoa da digitalizazio hori ematea, baina

eraikuntzan zaila da, batez ere kontrata, obra zuzendaritza eta promotoreen arteko rolak aldatzea. Digitalizazioak elkarlana dakar eta orain rol ezberdinek duten pentsaera aldatzea kostako da. Hala ere, etorriko da noizbait.

Promotorea da obra aurrera eraman nahi duen erakundea; obra zuzendaritza, teknikari edo proiektistak dira egitasmoa idazten dutenak; eta kontratak dira egitasmo hori exekutatzeko dutenak. Orain arte paper horiek oso definituak egon dira, beti izan dira berdinak eta digitalizazioak ekartzen duen aldaketa sakona da.

(E.L.) Gure kasua konkreturako enpresan 45 lagun baldin bagaude gaur egun, bulegoko lanean horietatik oso gutxi gaude. Digitalizazioan errazago sar gaitezke bulegoan ari garenok, baina kanpoan geratzen direnentzako ezinezkoa da.

Jasangarritasuna geroz eta gehiago entzuten da eraikuntza arloan ere. Lan egiten duzue arlo horretan?

(E. L.) Alde batetik, proiektu batetik zehaztuta etor daitezkeen alderdiak daude; material birziklatuak erabiltzea, herri-altzari eta zoladura jasangarriak... adibidez. Bertze alde, eraisketa bat egiten denean material hori berbalorizatzean dago jasangarritasuna. Sasoiaren eraikuntza enpresa izateaz gain, kudeaketa-lanak egiteko baimenak nola baliabideak ere baditugu. Esleipen pleguetan ere geroz eta garrantzi handiagoa ematen zaio jasangarritasunari, gainera ma-

terial birziklatuen erabilerak ingurugiroarekiko onura eta aurrekontuaren murriztea berarekin dakar.

Elektrizitatea eta gasa lortzeko geroz eta zailtasun gehiago daude, prezioek ere gora egin dute. Eraikin bat egiterakoan garrantzitsua izango da energiaren ikuspuntua, ezta?

(A.U.) Prezioen igoerak eragiten digu materialak erosteko orduan. Argindarraren eta gasolioaren prezioen igoerarekin dena igo da. Gure materialak siderurgiatik eta harrobietatik datoz, eta material horietan argindarraren prezioaren pisua oso handia da. Horrez gain, gure makineria guztia gasolioarekin darabilgu.

Material batzuetan % 30 eta % 50 artean igo da prezioa; guretzat, gainera, lehengai nagusiak direnak: hormigoia, asfaltoaren betuna eta hodiak. Joan den urtean esleitutako lan batzuk aurrera eramaten nahiko larri gabiltza aurtan.

Zein pauso eman dituzue euskara zuen entitatean txertatzeko? Zein izan dira horretarako motibazioak, zergatiak?

(E.L.) Sasoiak 2011n eskuratu zuen Bai Euskarari ziurtagiria, 'Bidean' mailan hasi ginen eta urtero egin diogu ekarpena sistemari urratsez urrats. Dirulaguntzak ere jaso izan ditugu eta horrek ere lagundu digu urrats handiagoak ematera. Batez ere, bezeroei eta langileei bideratutako urratsak ematera. Gainera,



harrera hagitza ona izan dugu eta horrek ere laguntzen du aurrera egiten. Bertzalde, laguntza handia izan dugu Malerreka Mankomunitateko euskara zerbitzutik. Gure sektorean euskara teknikoaren garapena zaila da eta hagitza lagungarria izan zaigu mankomunitatearen ekarpena.

(A.U.) Langile guztiok ere euskaldunak gara eta goi-mailako ikasketak euskaraz ez egin arren, egunerokotasunean euskara erabiltzen dugu

“Badator sektorearen digitalizazioa, baina horrek suposatzen du oso errotuta dauden rolak aldatzea eta kostako zaiio”

50
urte

kulturgintzan,
herrigintzan





eta saiatzten gara lan-kontuetara ere euskara geroz eta gehiago sartzen.

(E.L.) Eskualde honetan denok gara euskaldunak, gu ere enpresa euskalduna gara eta gure barne-politikan dago eskualdeari euskaraz ekarpena egitea eta hedatzea.

(A.U.) Bezeroek ere geroz eta gehiago eskatzen digute euskaraz egitea. Administrazioan, adibidez, gaztelaniarako joera zuten lehen gehienek, baina orain langile gazteagoak sartu dira, ikasketak euskaraz egin dituztenak eta harremanak euskaraz ematen dira.

(E.L.) Egia da gure kokapena ona dela; Nafarroan gaude, Gipuzkoa bertan dugu, Ipar Euskal Herria ere bai eta denekin gure harremana euskaraz da.

Webgunea egin genuenean garbi genuen euskarazko webgune bat nahi genuela. Nortasun bat ematen

digu lehenengo hitza euskaraz egiteak.

(A.U.) Bulegoan lortu dugu, gainera, lantalde bat denok euskaraz egiten duguna. Lehen ezinezkoa zitzaigun baina orain lan-talde euskalduna dugu eta horrek ere egin du gure lan-sistema guztia pixkanaka euskaratzen joatea.

(E.L.) Bai langileen harremanak eta bezeroekin ditugun harremanak geroz eta euskaldunagoak dira eta horrek bultzatzen gaitu gu ere beste pauso bat egitera. Konfiantza eta hurbiltasuna ere ematen du horrek, kanpo zein barne harremanetan.

Zein zailtasun izan duzue?

(A.U.) Esleipenena da arlo zailena. Hizkuntza teknikoa ez dago garatuta eta proiektu oso gutxi daude euskaraz idatzita. Memoria, agian, euskarara itzulita izan dezakete, baina beste guztia erdaraz izaten da. Ahozko harremanetan euskaraz aritzen gara, baina esleipenetarako idatzi behar dugunean erdaraz aritzen gara. Itzuli hori egitea falta zaigu. Administrazioak eta guk lan handia egin beharko genuke hori aldatzeko.

Bestetik, gure aholkulariak eta hornitzaileak euskaldunak bilatu ditugu eta batzuetan aurkitu ditugun arren, ez da erraza arlo guztietan euskaldunak aurkitzea.

Zuen esperientziatik, nola eragin daiteke beste enpresetan ere euskara txertatzen hasteko?

(A.U.) Langile euskaldunak izatea da oinarria. Langileek erraztasuna

baldin badute euskaraz hitz egiteko eta motibatuta baldin badaude euskaraz lan egiteko, errazagoa da. Hasieran agian egon daitezke zalantza edo beldur batzuk euskaraz ez garelako ondo azaltzen, ez dugula erraztasunik, baina horiek gainditzen saiatu behar gara. Sustapen hori pertsonalki egin eta gero taldean ere bultzada baldin badago, errazagoa da.

(E.L.) Hornitzaileekin saiatzen gara lehenengo harremana euskaraz egiten eta horrek konfiantza eta hurbiltasuna ematen du.

(A.U.) Obran daudenean, adibidez, bizilagunekin euskarazko tratua baldin badute, lan egitea errazagoa izaten da eta bizilagunak ere gusturago sentitzen dira.

Zein arrazoi emango zenukete Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratzeke?

(E.L.) Euskara hedatzeko modu bat da, zerbitzua euskaraz ematen duzula bermatzen du ziurtagiriak.

(A.U.) Gainera, Bai Euskarari komunitatean egotea bada eskaparate moduko bat ere, euskaraz zerbitzua nork eman diezagukeen erakusten diguna.

“Langileek erraztasuna baldin badute euskaraz hitz egiteko eta motibatuta baldin badaude euskaraz lan egiteko, errazagoa da”

**ZIURTAGIRIA
LORTZEKO
HAMAIKA
ARRAZOI**

Beste #11arrazoi bildu ditugu Bai Euskarari Ziurtagiria lortzeko.

Zein da zuen arrazoia? Ezagutu guztiak



IKER GOÑI EUSKARABENTURA ELKARTEAREN LEHENDAKARIA

“Gazte askok euskaraz bizi daitekeenaren froga positiboa jasotzen dute”

EuskarAbentura uztaila osoan zehar Euskal Herria oinez zeharkatzen duen espedizioa da. Euskal Herriko eta diasporako 16 eta 17 urteko gazte euskaldunek parte hartzen dute bertan eta EuskarAbentura Elkarteak da sustatzailea. Bai Euskarari Saria jasoko du aurten elkarteak.



Bai Euskarari Saria jasoko duzue. Zer da zuentzat sari hau jasotzea?

Bai Euskarari Saria jasotzeak sekulako ilusioa egin digu eta oso eskertuta gaude. Errekonozimendu honek guretzako esanahi handia dauka eta harro sentiarazteko arrazoia ere bada. Nazio mailako sari bat jasotzen dugun lehen aldia da eta hizkuntzarekiko ekarpena kontuan hartzen duten sariak hain urriak izanik, egindako lan handiaren ordainsaritzat jaso dugu. Gainera, aurreko edizioetako saridun gehienak gure erreferenteak izan dira, eta ohore handia da EuskarAbentura elkartearen izena erreferente horien ondoan ikustea.

Nola sortu zen EuskarAbentura? Zein helbururekin?

EuskarAbentura elkartearen hasiera 2015ean Boiseko Jaialdian finkatu ohi dugu. Kasualitatez, herrialde desberdinetako gazte batzuk elkartu ginen eta euskararen erabilera eskasarekin kezkatuta, *Ruta Quetzal euskalduna* sortzea bururatu zitzaigun. Hasieran ideia zoro bat zena, errealtate bihurtu genuen.

Elkarteak lau helburu nagusi bilatzen ditu: gazteen artean euskararen erabilera sustatzea; gazte euskaldunen sare berri bat sortzea; Euskal Herriko ezagutzan sakontzea (geografikoa, historikoa, kulturala, naturala...); eta balio

positiboak transmititzea (parekidetasuna, bizikidetzak, bizi-ohitura osasuntsuak, ingurumenarekiko begirunea eta turismo eredu jasangarria).

Elkarteko kide gara hasieratik: Beñat Garaio, Iñaki Goikoetxea, Iker Goñi, Irati Labaien, Josu Lopez de Aretxaga, Areta Lorea, Ane Pedruzo eta Imanol Zabaleta. Eta elkartekideez gain, langileak ere baditu EuskarAbenturak: Ane de la Prensa (koordinatzailea), Irune de la Maza (koordinatzailea), Igone Mariezkurrena (Komunikazio arduraduna) eta Izaro Arruti (Hizkuntza ikerlarria). Guztiok egindako lanaren fruitua da gaur egungo EuskarAbentura.

Gazte ugari parte hartu dute egin dituzuen hiru espedizioetan. Zein balorazio egiten duzue orain arteko espedizioen inguruan?

Gure balorazioa oso ona da, hasieran zalantza batzuk izan genituen, ea *ErdarAbentura* ez ote zen izango, edo gazte kopuru handiegia ez ote genuen eramango... Baina zorionez antolaketa egokiarekin asmatu genuen eta gazteek euskararekiko konprometzua erakutsi zuten.

Dena den, gure ikuspuntutik haratago, gazteei egiten dizkiegun inkestetan emaitza ezin hobekak jaso ohi ditugu eta guraso gehienek ere (150 euroko bermea) elkartearen dohaintza uztea erabakitzen dute, konforme geratu di-



renaren seinale. Eta babesleei dago-kienez, proiektua urtero laguntzeko asmoarekin jarraitzeak bide onetik goazela adierazten digu.

Zer ematen die gazteei EuskarAbenturak?

Uztailaren 1ean gurasoek agurtzen duten gaztea eta uztailaren 31n etxera itzultzen dena desberdina dela baieztatu dezakegu. Gehienentzat etxetik kanpo hainbeste denbora egongo den lehen aldia izan ohi delako eta egoera berri hori euskaraz bizi izango duelako. Gure herriaren ezagutzan sakontzeaz gain, bestelako ikasketa batzuk ere jasotzen dituzte eta horietako asko balio positiboekin harremanduak daude. Gazte horiek sare euskaldun batekin itzultzen dira etxera, eta askok euskaraz bizi daitekeenaren froga positiboa jasotzen dute.

Euskal Herri osoko gazteak biltzen ditu espedizioak. Behin Euskarabentura bukatuta kontaktua mantentzen dute? Zer-

nolako sarea sortzen da gazteen artean?

Espedizioa bukatutakoan, gehienek udako jaiak baliatuta, abuztuan eta irailean zehar elkar ikusten jarraitzen dute. Sare sozialetan ikusten dugunaren arabera, askok oraindik ere harremanetan jarraitzen dute.

Elkartek ere noizean behin, topaketa 'ofizialagoak' antolatu izan ditu, Korrikarekin bat eginez, Euskal Selektzioaren partidetan edo-eta edizio berrien aurkezpen ekitaldietan.

Baina gehien pozten gaituena, berriro elkartzen direnean, gehienek euskaraz egiteko ohitura mantentzen dutela da eta guretzako sekulako garaipena da.

Euskal Herri osoa zeharkatzen duzue. Zein harrera egiten dizuete joaten zareten lekuetan?

Orokorrean herri gehienetan harrera ezin hobea izaten dugu, jarrera ona eta beso zabalik hartzen gaituzte. Inoiz, herriren batekin salbuespenen bat izan bada ere, ez dugu inongo herririk seinalatuko (kar-kar). Bide

batez, urte hauetan hartu gaituzten herri guztiei, eskainitako prestutasuna eskertzeko aprobetxatu nahi dut.

Euskal Herrian euskaraz bizi daitekeela erakusteko modu bat ere bada?

Bai noski, zalantzarik gabe, lurralde euskaldunetan eta ez hain euskaldunetan euskaraz bizi garela erakusten dugu. Ez gaude ziur, baina seguruenik, hilabeteko iraupenarekin eta hain jendetsua den espedizio euskaldunik ez da aurretik inoiz egon.

2022ko espedizioa antolatzen ari zarete. Zein berezitasun izango du aurtengoak?

Aurtengo edizioak hiru berezitasun

“Parte-hartzaileak berriro elkartzen direnean, gehienek euskaraz egiteko ohitura mantentzen dutela ikustea guretzako sekulako garaipena da”

ditu. Lehenik, jatorrizko formatua berreskuratuko dugu, izan ere, azken bi urteetan pandemia madarikatuaren ondorioz ezin izan dugu hilabete osoko espedizioa gauzatu. Bigarrenik, inoiz baino gazte gehiagok parte hartuko dute, guztira 128k. Eta, azkenik, ibilbidearen zati bat aldatuko dugu eta uztailearen 19an, gure arbasoek duela 500 urte bezalaxe, Amaiurren lo egingo dugu. Efemeride historiko garrantzitsua iruditzen zaigu eta hura omentzeko asmoa daukagu.

Parte-hartzaileek proiektu bat aurkeztu behar dute izena ematerakoan. Zergatik aukeratu duzue modu hori?

Parte hartu nahi duten gazteentzat proiektu bat aurkeztea ezinbesteko baldintza da. Irizpide hau Ruta Queztaletik hartu genuen eta gure kasuan hizkuntza ohituretan eragin ahal izateko banakako izen-ematea estrategikoa egiten zaigu. Urtero hiru gai desberdin finkatzen ditugu eta formatua disziplina hauetakoa izan daiteke: historikoa, literarioa, ikus-entzunezkoa, musikala, plastikoa edo-eta sormen digitalekoa. Horrela, gazte bakoitzak daukan gaitasunaren arabera proiektua aurkeztu dezake. Proiektu horiek guztiak ebaluatzeko Eusko Ikaskuntzaren eta PuntuEUS Fundazioaren laguntza izateaz oso eskertuta gaude.

Euskara eskola esparruarekin lotzen dute gazte askok. Euskarak iraungo badu aisialdian ere euskaraz aukerak sortu beharko ditugu. Nola ikusten ditugu gazte euskaldunendako aisialdi aukerak?

Azken aldian, euskalgintzatik eta instituzioetatik euskararen erabilera areagotzeko aisialdian eragitea ezinbestekotzat jotzen hasi dira. Adibidez, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politika Sailburuordetzaren azken estrategia kirolari zuzendua dago: futbola, errugbia eta saskibaloia.

EuskarAbentura elkarteak ere hausnarketa berdintsuaren ondorioz jaio zen eta duela hilabete batzuk Topagunearen laguntzarekin eta aisialdiko zenbait elkarterekin batera Kukulaisi federazioa sortu genuen. Federazio berri hau, hain zuzen ere, aisialdiko elkarteak antolatuagoak, koordinatuagoak eta indartsuagoak izateko helburuarekin sortu da.

Bai Euskarari Ziurtagiria duzue. Zertan laguntzen dizue ziurtagiriak?

Gure jarduera guztia euskaraz gauzatu behar badugu ere, zenbait alorrean euskaraz aritu gintezkeela oharatzeko balio izan digu; gure ordenagailuetako softwarean euskarazko bertsioak aukeratzeko, adibidez. Ondorioz, ohartu gabe egiten genituen

joera batzuk zuzentzeko balio izan digu.

Zein arrazoi emango zenukete Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratzeko?

Ziurtagiria lortzeko lehen urratsa entitatearen hizkuntza ebaluazioa egitea da eta, horri esker, helburuak eta hobetu beharreko parametroak zehazten dira. Egoera hobetzeko, zer hobetu behar den jakitea ezinbestekoa da eta bide horretan oso lagungarria da.

Horretaz gain, entitateen baitan euskararen erabilera eragiteko oso tresna eraginkorra iruditzen zait, eta bertako langile askok eskertuko dutena. Enpresentzat ere baliagarria dela iruditzen zait. Izan ere, euskara baloratzen duten bezeroek euskararen alde egindako ahalegina oso positiboki baloratuko dutelako eta enpresa horretara itzultzeko aukerak areagotuko dituelako.

“Azken aldian, euskalgintzatik eta instituzioetatik euskararen erabilera areagotzeko aisialdian eragitea ezinbestekotzat jotzen hasi dira”



JON ABRIL OLAETXEA ELHUYARREKO ZUZENDARI NAGUSIA

“Erabateko eraldaketa garaian gaude eta bereziki euskarak sekulako erronka du”

Euskara eta zientzia uztartzeko sortu zen Elhuyar duela 50 urte eta harrezkero bide oparoa egin du erakundeak. Erreferentzialtasuna lortu dute zientzia arloan eta beste hainbat proiektutan murgilduta daude. Bai Euskarari Saria jasoko dute aurten.

Bai Euskarari Saria jasoko duzue. Zer da zuentzat sari hau jasotzea?

Poz handiz jaso dugu albistea. Etxekoek edo gertukoek, gehien maite gaituztenek, lana eta ibilbidea aitortzen dizkigutenean poz berezia izaten da. Era berean, bada nolabaiteko aitortza euskararen arloan egin dugun ibilbideari.

Ez gara batere originalak izan. Aurten sari zaparrada jasotzen ari zarete.

Hirugarren saria da. Ser Irratiak eta Elkarrek ere eman digute sari bana. Gure lana ikusarazteko eta komunitateari esker ona emateko baliatzen dira sariak. Urte batzuk zailak eta gogorak izan dira eta azken urteotan gizarteari ekarpen polita egin diogu, eremu ezberdinetan. Orain, urte aunitzetako ekarpenaren fruituak jasotzen ari gara.

Badakigu 50 urte laburtzea ez dela lan erraza, baina zer zen Elhuyar duela 50 urte eta zer da gaur egun?

Erabat aldatu da. Duela 50 urte, gazte utopiko ameslari batzuen borondate handiko lana zen. Euren lan eta jardueratik kanpo egiten zuten lana. Beraien beharretara egokitutako lana zen, beraien esparruan euskaraz ezer ez zegoelako. Kontestu berezia zen: frankis-



moaren bukaera, euskararen berpizkundera, ikastolen sorrera, Elkar, UEU, euskara batua, etab. Testuiguru horretan, zientziatik, euskarari ekarpena egin nahi izan zioten. Hura egituratzen joan zen eta gaur egun Elhuyarren 100 langiletik gora gara eta urtero 6 milioi euroko aurrekontua dugu. Aitzindaria izan da: hiztegi erreferentziala, lehen euskara planak Elay eta CAFekin, hizkuntza teknologien arloan, adimen artifizialean, euskaraz zientziaren dibulgazioan...

Elhuyar hiztegiarekin lotzen dute askok erakundeak, baina hiztegia baino askoz gehiago da. Zein arlotan diharduzue lanean?

Lau esparru nagusitan egiten dugu lan. Lehenengoa, euskara planekin eta hizkuntza zerbitzuekin lotutakoa da: euskara-panak, itzulpen zerbitzuak, hiztegi gintza... Bigarren batean berdintasuna, partaidetza eta eraldaketa soziala bultzatzeko prozesuak bideratzen ditugu, erakunde publiko nahiz entitate pribatuetan.

Zientziaren gizarteratzea da hi-

rugarrena. Hiru eremutan ari gara zientzia gizarteratzeko eta hezkuntzaren alorrean zabaltzeko lanean: kultura zientifikoa zabaltzen, gazteen zientzia- eta teknologia-hezkuntzako kompetentziak eta gaitasunak garatzeko ekimenak sortzen (STEAM hezkuntzara bideratutakoa, Zientzia azoka, aisialdian gazteek zientziarekin gozatzeko espazio fisikoak), eta kalitatezko komunikazio-zerbitzuak eskaintzen (Norteko Ferrokarrila, Ekosfera, Elhuyar aldizkaria, Zientzia.eus). Laugarren esparrua adimen artifiziala eta hizkuntza-teknologiarena da. Ahotsaren arloan asko aurreratzen ari gara, **Big Dataren** inguruan aplikazio ezberdinak sortzen, chatbotak, bilatzaile neuronalak... Ez gara aspertzen!

Proiektu berri bat aurkeztu duzue, Orai, adimen artifizialeko langunea. Zertan datza proiektua?

2019an, Elia aurkeztearekin, ikusi genuen lantalde gaitu bat bagenuela eta ondo posizionatuak geundela hizkuntza naturalaren prozesamenduaren eremuan. Euskal Herrian ondo kokatuta geundela ikusi genuen, euskaraz pentsatu eta lan egiten dugu, baina beste hizkuntza batzuetan ere bai.

Asko kostatzen zaigu zenbait eremutan murgiltzea, bereziki enpresa korporatibo handietan. Teknologia adimendunen proiektuetan euskara ere egon behar da, industria ari da horretan eta badagokigu ahalegin hori egitea. Esparru horretara begira sortu dugun egitasmoa da Orai. Elhuyar markarekin zentratuko gara hizkuntzaren garapena eta gizarteri begirako ekarpena egiten; Orairekin enpresa industrialetan, beste-lako enpresetan eta administrazioan arituko gara. Jakintza partekatua izango da. Nahi dugu batak bestea elikatzea eta gure erakundearen balio hauek eramatea arlo industriallera: teknologia inklusiboa, edozein

hizkuntzatan, edozeinen esku eta etikoa izan dadila.

Zientzia eta euskara uztartzea izan zen hasierako erronka, baina horretatik harago zientzia arloan erreferentzialtasuna lortu duzue, batez ere pandemia garai honetan. Zein oztopo izan dituzue eta nola egin diezue aurre?

Pandemiak balio izan digu are eta gehiago ikusarazteko egiten dugun lana. Euskaraz, hurbiltasunez eta lasaitasunez informazioa transmititzen asmatu dugu. Pentsatu genuen gizarteriari modu erraz eta labur batean eman behar geniola gertatzen zenaren berri eta horretarako bideo pilulak sortu genituen. Euskarazko hedabideen komunitate osoari eskaini nahi izan genizkien eta astero euskarazko 40 hedabidek zabaldu zituzten edukiak. Begi-bistakoa izan zen emaitza. Pandemiak erakutsi zuen ez ginela kasualitatez iritsi erreferentzialtasun hori lortzera. Elhuyar abila izan da sare heterogeneoa sortzen, hitzarmen asko baititugu enprekin, administrazioarekin, euskalgintzako erakundeekin, eta horrelako egoera batean badakigu nora jo informazio bila.

Etengabeko berrikuntzan aritzen zarete. Nola egiten da hori? Zein prozesu jarraitzen duzue konfort gunean ez gelditzeko?

Lan egiteko modu bat da. Erakunde nahiko horizontala gara eta edonork proposatu dezake zerbait berria egitea eta ikusi edo entzun dugun zerbaiti tira egitea. Adi egoten gara gizarterean gertatzen denari eta sare horretatik ere asko elikatzen gara. Espazio informalei garrantzia ematen diegu. Proiektu berrien garapenean etengabe aritzen gara. Izaeraz ere ez gara hagitz konformistak.

Elkarrizketa batean esan duzu 50 urtez etenik gabeko entzute ari-



ta bat izan dela. Zer eskatzen du orain gizarteak? Zein erronka ikusten dituzue?

Geroz eta zailagoa da hori jakitea. Gero eta iraupen motzagokoak dira beharrak. Etengabe adi egotea eta ahalik eta azkarrena izatea da egin behar duguna. Teknologia baten garapenak askotan hilabeteak eskatzen ditu eta agian korporazio handi batek, batez ere arlo teknologikoan, guk baino erraztasun handiagoa izango luke zerbait sortzen. Baina guk badugu zerbait besteek ez dutena: gertutasuna.

Digitalizazioak erronka batzuk ditu berekin. Erabateko eraldaketa garaian gaude eta bereziki euskarak sekulako erronka du. Teknologia-aren heldutasun mailan ondo gaude, baina penetrazioan ez gaude puntan. Administrazioak badu zeregina horretan. Bai fiskalki eta baita arau

“Globalizazioan desberdin egiten gaituzten horiei eusten badiegu, hobeak izango gara.”



aldetik ere, enpresa teknologikoei gure hizkuntza erabiltzeko ardura exijitu behar diegu. Herritarrok ere badugu ardura; euskaldun asko ikusten dira, adibidez, euskaraz sortu ez diren itzultzaileak erabiltzen. Kritikoagoak izan behar dugu eta ahalegin bat egin behar dugu.

Larrialdi klimatikoarekin lotuta dago beste esparru bat. Hausnarke-ta sakon bat egin behar dugu gure proiektuen inpaktutik hasita. Gero euskara bera dago, 50 urte hauetan euskararen garapena izugarria izan da, baina egiteke dagoena handia da, batez ere lan munduan. Ez dugu lortu euskaraz lan egitea gehiengo batek. Hor ere lege aldetik arauak behar dira hori sustatzeko. Langileok ere ahalmentze ariketa bat egin behar dugu. Euskarak iraunen badu hezkuntzan egin den ahaleginaren parekoa egin behar da lan munduan eta aisialdian. Gizartea euskalduntzeko ahalegin kolektibo handia egin dugu eta lortu beharko genuke gure inbertsio hori ez galtzea. Ikasketak guztiak euskaraz eskaini eta lan munduan sartzerakoan ez badugu horrekin jarraitzea bermatzen, langi-

leei iruzurra egiten ari gara.

50 urtez euskaraz dibulgatzen, euskaraz komunikatzen... Euskara egunerokoan darabilzue. Izan duzue oztoporik horregatik?

Oztopoak edozein euskaldunok egunerokoan topatu ditugun oso antzekoak dira. Ez dut uste beste batzuk baino gehiago sufritu dugunik. Euskaraz lan egiten dugun erakundeok euskarazko etiketa hori daramagu gainean eta ez gaituzte egiten dugunagatik ikusten, batez ere enpresa pribatuetan.

Nola irudikatzen duzu Elhuyar hementik beste 50 urtera?

Elhuyar irudikatzen dut gizartearen beharrei erantzuten, gaur den Elhuyarrendandik oso ezberdina. Asmatzen badugu, erakunde sendo eta osasuntsu bat izango da. Gurea bezalako hizkuntza eta kultura txiki batean lan egitea beti da gehigarri bat eta, zoritxarrez, aurrerantzean ere horrela izango da. Lan munduan izugarritzko aldaketak biziko ditugu. Oraindik ez gara jabetzen lan munduan izango den iraultza teknologiko ikaragarriaz; telefono mugiko-

rrek norbanakoengan izan duten iraultzaren bestekoa izango da, lan egiteko moduak eta lanak asko aldatuko dira. Horrek aunitz markatuko gaitu eta eraldaketa horrek izugarritzko eragina izango du harremantant. Geroz eta gizarte indibidualistagoa dugu eta horretan ez jausteko badaude ahalegin kolektibo aunitz Euskal Herrian. Globalizazioan desberdin egiten gaituzten horiei eusten badiegu, hobeak izango gara.

Zer eskaintzen dizue Bai Euskarari Ziurtagiriak? Zein arrazoi emango zenuke Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratzeko?

Gure erakundearen sortze helburua euskararen normalizazioa eta sustapena da eta Bai Euskarari Ziurtagiriak laguntzen digu etengabe hobetzeko bide horretan. Egia da guk hasiberri batek baino ahalegin ttikiagoa egin behar dugula, baina badugu guk ere lana egiteko: gure hornitzaile guztiak ez dira euskaldunak eta bezeroak ere ez. Horrek, ondorioz, inertzia batzuk sortzen ditu eta Ziurtagiriak laguntzen digu egunean egoten eta protokoloak berrikusten. Gu baino egoera apalago batean egon daitekeen erakunde batentzat zer esanik ez. Lana antolatzen eta zure buruari betebeharrak batzuk ezartzen laguntzen du Ziurtagiriak. Bestelako esparru batzuetan lasaitzeko joera dugu eta Bai Euskarari Ziurtagiriak laguntzen du erakundea hobetzen, eta ez bakarrik hizkuntzaren ikuspuntutik; gauzak nola egiten dituzun berrikusten hasten zarenean beti azaltzen dira hobetzeko gauzak.

“Euskarak iraunen badu hezkuntzan egin den ahaleginaren parekoa egin behar da lan munduan eta aisialdian.”

Arlo sozioekonomikoan euskarak duen balioa nabarmendu dute Nafarroako ‘Euskara langai’ jardunaldian



“Euskara txertatzeko lanean ari direnei bultzada eman eta hasi nahi dutenentzat erakusleihoa” izateko asmoz, Euskara Langai jardunaldia egin zen maiatzaren 24an Iruñean, Baluartean. Nafarroako Gobernuak, Euskarabidearen bitartez, antolatu zuen jardunaldia eta Bai Euskarari Elkartek izan zuen prestatzeko eta kudeatzeko ardura.

Praktika onak


Hainbat enpresa eta entitateren praktika onak izan zituzten hizpide jardunaldian, bai Nafarroakoak, baita lurraldetik kanpokoak ere. Hala, euskara kudeatzen hasita dauden Nafarroako enpresa hauetako praktika onak ezagutzeko aukera izan zen: MAPSA, Ederlan, Osasuna, Iturri Kontserbak, Oreka IT, Labrit Ondarea eta Top-Topa Shop plataforma.

Nafarroatik kanpoko praktika onen atalean, aldiz, Lanabes, Indeus eta Bai Euskarari Elkarteen Euskaragi-leak proiektuak izan ziren hizpide.

Etorkizuneko arlo sozioekonomikoari begira ere jarri ziren jardunaldian, enpresa munduari lotutako hiru gaztek egindako solasaldiarekin; bertan, Oihane Larrañegik (AJE Navarra), Mikel Idoatek (Izarra tanatorioa) eta Uxue Izcoek (TINC) parte hartu zuten.

Amaitzeko, jardunaldiaren ondorioez eta etorkizuneko erronkez aritu ziren Elhuyar, Emun eta Ahize-AEK-ko aholkulariak.

Jardunaldia zuzenean eskaini zen streaming bidez eta *Euskaralangai.eus* webgunean duzue ikusgai, baita praktika onak ere ‘Multimedia’ atalean.



Enpresen kanpo komunikazioa landuko da Arabako Enpresen Foroaren azken bileran



Enpresen kanpo komunikazioa landuko da Arabako Enpresen Foroaren azken bileran

Eusko Jaurlaritzak, Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak landiketzan abiatutako Arabako Enpresen Foroak segida izan du 2022an ere, eta Lanabes talde eragileko partaide den Bai Euskarari Elkarteak ari da arduratzen bere kudeaketaz.

Bi bilera egin dira orain arte eta azken bilera, hirugarrena, ekainaren 30ean egingo da.

Lehenengo bileran, enpresan euskararen erabilera indartzeko epe motzera eman ahal diren urratsak landu zituzten, bai eta plan baterako arrakastarako gakoak ezagutu eta pertsonen kudeaketa egokirako jarraibideak ere. Bigarren, be-

rriz, barne-komunikazioari begira jarri ziren eta azken bileran, ekainaren 30ean, kanpo-komunikazioa landuko dute.

Aurtengo edizioako bilera hauetan beste enpresa batzuen praktika onak ezagutzeko aukera ere egon da. Hala nola, Abb Niessen, Elkar Taldea, Fagor Taldea eta Elhuyarrena.

Hirugarren bileran parte hartu nahi izanez gero, izen-ematea zabalik dago:



Artis Kreativa saritu dute, erakusleioan euskara hoberen txertatzeagatik

Aenkomerrek antolatutako Udaberriko IX. Erakusleiohen Lehiaketako sari banaketan euskara erakusleioan txertatzearen saria jaso zuen Artis Kreativak; Bai Euskarari Elkarteak ematen du sari hori. Lehiaketaren helburua da merkataritza eta sormena sustatzea, merkataritza bera erakargarriago bilakatu dadin.

Erakusleioan euskara ondoen erabiltzeagatik saria: 300 euro, plaka eta 1.500 euroko publizitatea DNA egunkarian.

Bai Euskarari komunitateko kidea da Artis Kreativa eta 'Bidean' ziurtagiria du.



**GURE KULTURAREN
KOLORE GUZTIAK**

LEITZARAN
grafikak

Gudarien Hiribidea 29
20140 Andoain (Gipuzkoa)
Tf: 943 30 35 10
www.leitzaran.eus
grafikak@leitzaran.eus

16 entitate berri Bai Euskarari komunitatean

2022 urtea hasi zenetik 16 entitatek eskuratu dute Bai Euskarari Ziurtagiria, enpresan euskara erabili eta sustatzeko helburuarekin. Arlo sozioekonomikoan euskararen erabilera areagotuz ari gara pauso pauso. Zorionak eta ongi etorri Bai Euskarari komunitatera!

- Artatxiki Biogunea (Gipuzkoa)
- CEIT (Gipuzkoa)
- CodeSyntax (Gipuzkoa)
- EH KOM, Koop.S. (Gipuzkoa)
- Euskal Kanoe Federakuntza (Gipuzkoa)
- Eusko Eki S.L. (Gipuzkoa)
- Gorobel CrossFit (Araba)
- Grupo SSI Formación (Bizkaia)
- Hargoi Hilerría S.L. (Gipuzkoa)
- Ikusi ta ikasi (Lapurdi)
- LANDARRI SL (Gipuzkoa)
- Librería Anticuaria Astarloa (Bizkaia)
- Naturpolo (Gipuzkoa)
- Polos Locos (Gipuzkoa)
- Zirkun Zirko. Zirko eskola (Bizkaia)
- Zur-industrien prestakuntzarako ikasketa-zentroa (Araba)

Ikusi ziurtagiridun guztien mapa:



Lorpen txiki bakoitza urrats handi bat da arlo sozioekonomikoaren euskalduntzean eragiteko

Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratzearekin batera, entitateek urtero zenbait helburu zehazten dituzte ematen duten zerbitzuan edo-eta egiten duten lanean euskarak ahalik eta presentzia handiena izan dezan. Helburu horiek betetzea lorpen bat izan ohi da eta, horiekin, 'Ziurtagiridunen lorpenak' izeneko atala osatzen ari gara. Lorpen horien berri ematen dugu hilerro, buletinean.

Hemen dituzue lorpen guztiak:



lansarean



LAN ETA BIZI
EUSKARAZ

**EUSKARAZKO
LAN-ATARIA**
LAN BILA ZABILTZA?
LANA ESKAINTZEN DUZU?


lansarean.eus



Proiektu interesgarriak #EnpresareanTB kanalean

Enpresen eta profesionalen interesekoak diren elkarriketak plazaratzen ditugu EnpresareanTB kanalaren bidez. Aurten, Olgeta, Errigora eta TxukuntZEN bezalako proiektu interesgarriak ezagutzeko aukera izan dugu.


Zuen proiektuarentzat ere badago lekua kanalean. Elkarriketa saioan parte hartu nahi baduzue, idatz iezaiguzue info@baieuskarari.eus helbidera.



Enpresarean TB - Txukun bizi, ondo bizi, lasai bizi



Enpresarean TB - Nafarroa hegoaldetik auzolanean



Enpresarean TB - Jostailuak eta jolaserako ballabideak

Enpresarean.eus-en daude elkarriketa guztiak ikusgai:



Euspot lehiaketako laguntzaile izan da Bai Euskarari Elkartea


Ekainaren 2an egin zen Euspot lehiaketaren 2022ko edizioiko sari banaketa ekitaldia. "Zergatik lan egin kooperatiba batean?" izan da aurtengo gaia eta kooperatibismoa balioan jartzen duten spotak egin behar izan dituzte. Aurten ere Bai Euskarari Elkartek laguntzaile bezala parte hartu du, eta 18 urtetik beherakoen saria banatu zuen Rober Gutiérrezek.

Gure helburua arlo sozioekonomikoaren espazioak euskaraz betetzeko eragitea izanik, estrategikotzat jotzen dugu ikus-entzunezkoen industrian eta gazteen artean ere eragitea.

Euspot.eus webgunean dituzue aurkeztutako iragarki guztiak:



mitxelena
LARGE-SCALE CUSTOM MACHINING



Neurri handiko mekanizazioa

Eziago poligonoa, 21
HERNANI

T. 943 55 25 12 - 16
T. 943 55 28 16

info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com



#EnpresareanAzoka2022

Azaroak 3 / Orona Ideo (Hernani)

enpresarean




LAN ETA BIZI
EUSKARAZ

Etorkizuneko lan munduari begirada partekatua.

Pertsonen
ongizatea eta
industria
adimenduna
aztergai.

enpresarean.eus



Babesle nagusia



Laguntzaileak

